

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA
SOREASU 1. Kulturgunea - 20730 AZPEITIA - GIPUZKOA
CIF G20420816

Lehendakaria : Jabier Lazkano 669 83 33 77

Idazkaria : Iñigo Olarte 606 97 59 68

Diruzaina : J. Inazio Arrieta 608 08 70 24

Partaideak : Rafael Rezabal - Jabier Maiz - Andrex Maiz - Iñigo Arizaga - Igone Elejalde - Aitor Suinaga - J. Joxe Agirre - Ane Agirre - Julen Etxaniz

Hartu emanetarako : J. Inazio Arrieta 608 08 70 24 antxieta.arkeologi.taldea@outlook.com

“ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA“

Gipuzkoako ikerketa arkeologikoa garatzeko biltzen garen talde kultural bat gara.

Diru afanik gabeko talde kulturala , 1965 urtean Andoni Albizuri “ Katxo “ eta Rafael Rezabal ek sortua izan zen.

Gaur eguneko lan taldea 12 partaidekoa da :

Rafael Rezabal / Jabier Lazkano / Iñigo Olarte / Jabier Maiz / Andrex Maiz / J. Inazio Arrieta / Iñigo Arizaga / Igone Elejalde / Aitor Suinaga / J. Joxe Agirre / Ane Agirre / Julen Etxaniz

Arkeologi Prehistorikoaren barruan gure lana ikerketaren 1º fasea da :

- 1º Gipuzkoako aran ezberdinetan aztarnategi prehistorikoak izan litekeenak bilatzen saiatzen gera.
- 2º Aztarnategi prehistorikoa izan litekeen aurkikuntzaren azaleki miaketa eta azterketa.
- 3º Azaleko azterketa positiboa baldin bada , ikerketa arkeologikoa egiteko baimena eskatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- 4º Aztarnategi arkeologikoan Kata edo Zundaketa egiten da.
- 5º Kata edo Zundaketetan aurkitutako materialak garbitu , ikertu eta identifikatu egiten dira.
- 6º Aztarnategiaren dokumentazio osoa : Planoak , mapak, lekuko koordenadak , materialaren siglaketa ta inbentarioa eta abar.
- 7º Proiektu hauen zuzendari teknikoek eramanen zaizkio materialak , lehenengo ikerketak egin ditzaten.
- 8º Ikerketaren emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu eta aurkitutako material guztiak Gordailu zentroan entregatzen dira.

Taldearen aurkikuntza garrantzitsuenak :

EKAIN – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Deba / Zestoa

DANBOLINZULO – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Zestoa

ERLAITZ – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Zestoa / Deba

ASTUIGAINA – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Zestoa

SUSTRAIXA – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Lastur – Deba

AGARRE – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin eta Arte-Pieza Higikorrak** – Mendaro

AIXA – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia **Labar Artearekin** – Itziar – Deba

EZKUZTA – Goi Paleolito eta Erdi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia eta **Arte-Pieza Higikorrak** – Azpeitia

IRIKAITZ – Goi Paleolitoko eta Behe Paleolitoko Aire Libreko aztarnategia – Zestoa

ARNAILETA – Behe Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Errezil

AMALDA-III – Erdi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Zestoa

URKULU – Erdi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Lastur - Deba

ERRAILLA – Goi Paleolitoko haitzuloko aztarnategia – Aizarna – Zestoa

Gipuzkoako Foru Aldundia, Azpeitia ta Zestoa ko Udalak eta Kutxa Fundazioaren artean betetzen dituzte taldearen diru beharrak.

SOREASU 1. Kultur gunean kokatzen da taldearen “ Lan Gela “ bulego eta laborategiko lanak bertan egiten direlarik.
Gela hau Azpeitiko Udalak egokitutakoa dugu.

Asteartetan biltzen gara bulegoko langintzatarako SOREASU Kultur guneko gure gelan . (21:00 tik 23:00 tara)
Gure langintzan arduratua dagoen edozein etorri liteke.